

# Kalera, zertara?



ITZIAR MORENO MARTÍNEZ  
EUSKAL PRESO POLITIKOA

**B**orrokara lotu ginenean, jakin ba-genekien gure ideiak defendatzeak estatuen errepresio beldurgarria pairatzea ekar diezagukeela: tortura, kartzela, deserria... baita heriotza bera ere. Preseski horregatik egin genuen borroka! Gure herri txikitik hasi eta mundu zabalera, botere desoreka eta bidegabekeria gehiegi zegoela sentitzen genuelako eta, halaber, Ama Lurraren, herrien zein pertsonen kontrako zapalkuntza hori bazela ikusten genuelako. Gai honen gainean buru beste aburu badago ere, biolentzia arma politiko gisa zera-bilten bi estatuen errepresioari aurre egiteko eta, aldi berean, herri askeagoa eta justuagoa eraikitzeke helburuarekin jardun genuen guk; hutsak huts, osoak oso. Ugarik begi txarrez eta anitzek begi onez ikusitako borroka horren ondorioz gaude kartzelan eta, hortaz, gatazka politiko baten eraginez preso gauden euskal (gehi elkartasun iraultzaile miresgarriz gurekin batera bidea egin duten harri bitxi horiek) militante politikoak gara.

Batzuentzat agerikoa eta txalogarria izango da azken baieztapena, polemikoa askorentzat, eskandalagarria, iraingar-

Hamaikaren ahotan  
dago nola atera  
behar garen, zer egin  
eta esan behar  
(ez) dugun...  
Eta guk zer diogu?  
Itzalpe urte luzeen  
ostean, zertarako  
egon nahi dugu guk,  
presook, kalean?

ria edota zigorgarria ere beste hainbarentzat. Egia, koloreak edo puzkerrak bezala: bakoitzak berea du gustuko! Kontuak kontu, kartzelan gaude eta, goiz ala berandu, kalera aterako gara. Hamai-karen ahotan dago nola atera behar ga-ren, zer egin eta esan behar (ez) dugun... Eta guk zer diogu? Itzalpe urte luzeen

ostean, zertarako egon nahi dugu guk, presook, kalean?

Ukaezina da, zoritxarrez eta garaipenak garaipen, gure herria eta mundua ez direla heldu amestu agertoki aske eta bidezkoa. Bada, kartzelan ere, urteotan, nola edo hala, borrokan jarraitu dugu: beste presoekin batera, espetxe sistemaren kontra; kideekin, duintasuna zer den ikasten, harrotasunez, maitasunez; gure herrikideekin, betiere independentzia eta askatasunaren alde; geure burutxoekin, egunero, hezten, hazten, norbere kontraesanak gainditzen saiatzen. Ez dugu ilusiorik galdu! Biharko askatasunaren ametsa gaurko iraultza-ren errealitatea delako, borrokak berak aske egiten gaituelako, utopian sinisten jarraitzen dugu eta irrikaz gaude herrira bueltatu eta zuekin batera ekiten jarraitzeko!

Kalera atera nahi dugu, herria ERAIKITZEN, herria ASKATZEN, herria EGITZEN jarraitu nahi eta behar dugulako.

(Eta gure etxeratzea iskanbila bada... ongiatorri nudista batera gonbidatzen zaituztet! ;) Herriaren esku beti! Gora bihotzak eta behera frakak!). ●

## ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta  
Elizkura Ekologikoaren  
Kontseilua  
Consejo de Agricultura y  
Alimentación Ecológica  
de Euskadi

Babesleak:

